

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2017ko 4. hiruhilekoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Planifikatza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

LABURPENA

EAEko ekonomiak 2015eko lehen erditik hazkunde erritmoan erakutsi duen egonkortasuna 2017ko azken laurdenera ere luzatu zen. Epealdi horretan, urte arteko tasak aurreko emaitza (%3,0) berdindu zuen. Horren ondorioz, 2017. urte osoko gehikuntza %2,9ra iritsi zen, 2016an lortutakoa baino bi hamarren gutxiago bakarrik. Are gehiago, hirugarren urtez jarraian aldakuntza tasa %3,0aren inguruan kokatu da. Urte osoko batez bestekoa espainiar ekonomiak eskuratutakoa (%3,1) baino zertxobait apalagoa da eta Europar Batasunaren igoera (%2,5) ia puntu erdi batean gainditu du.

Eskariaren ikuspegitik, ekonomiak izan zuen bultzada guztia barne eskariaren eskutik iritsi zen. Aitzitik, kanpo saldoak ekarpen hutsala egin zion BPGaren gehikuntzari laugarren hiruhilekoan, nahiz eta bai esportazioak bai inportazioak bizkortzeko prozesu garrantzitsu batean murgildu ziren, EAEko enpresek beraiekin merkataritza harreman estua duten ingurune herrialdeen bizitasunak lagunduta. Hala eta guztiz ere, esportazioek egin zuten ekarpen positiboa inportazioen ekarpen negatiboak konpentsatu zuen, bi aldagai horiek, termino errealetan, %4,8 handitu zirelako epealdi horretan.

Barne eskariak portaera sendoa (%3,1) aurkeztu zuen berriro, beraren bi osagai nagusiek erakutsi duten dinamismoari esker. Azken kontsumoa %2,8 areagotu zen, hala laugarren hiruhilekoan nola urte osoko balantzean. Kontsumoaren barnean, kontsumo pribatuak moteltze arina ezagutu zuen eta aurreko zortzi hiruhilekoetako gehienetan jaso zuen %3,0 hartatik aldendu zen, urte arteko tasa %2,8an utziz, oraindik balio nabarmena baita. Kontsumo publikoa %2,9 hazi zen, baina atal horretako gorabeherak esanguratsuak izaten dira.

Beste aldetik, kapital eraketa gordina %3,8 hazi zen azken hiruhilekoan. Agregatu honetan, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren garapen biziari gainontzeko inbertsioaren bultzada, eraikuntzan eginikoa barnean dagoela, gehitu zitzaion. Izan ere, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak %4,6ko gehikuntza tasa, moteltzeko joera leun batean, jaso zuen bitartean, gainontzeko inbertsioa %3,4 areagotu zen, goranzko norabide garbi batean.

Sektoreen analisiak erakusten du industriak eta zerbitzuak aurreko epealdietan izan zuten bilakaera onari eraikuntzaren bizitasun berritua gehitu zaiola, urte amaieran %3,1eko gehikuntza lortu zuelako, BPG osoaren emaitzatik oso hurbil. Industria, berriz, laugarren hiruhilekoko sektore dinamikoena izan zen, urte arteko tasa %3,7ra igoarazita, aurreko hiruhilekoko datua puntu batean gaindituz. Ingurune ekonomiek bizi duten une gozoak eskari

berriak ekarri dizkio manufakturen arloari eta honek ekoizpena eta esportazioak goratzen erantzun du.

Aipatu diren bi sektore horietatik aldenduta, zerbitzuek apaltzeko joera txikia ezagutu zuten 2017ko laugarren hiruhilekoan eta urte arteko tasa %2,9ra eraman zuten, urte osoko emaitzarik motelena baita. Balio erantsiaren apaltzea are garbiagoa da merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldean, urte arteko tasa lehen hiru hiruhilekoetako %3,8tik laugarreneko %3,1era murriztu zuelako. Aitzitik, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak barnean hartzen dituen atalak hiru hamarrenetan hobetu zuen bere tasa eta %2,9ra igoarazi. Hala ere, atal horretan ohikoak izaten dira gorabehera handiak. Azkenik, gainontzeko zerbitzuek %2,7 handitu zuten beren balio erantsia, hots, aurreko bi hiruhilekoetan baino hiru hamarren gutxiago.

BPGaren bilakaera on horrekin batera, lan merkatuak urte arteko gehikuntza tasa egonkorreko norabidea eskaini zuen, %2,0aren ingurukoa, dagoeneko hiru urtez luzatu dena. Zehazkiago adierazita, laugarren hiruhilekoan, aldakuntza tasa horrek lanaldi osoko 18.400 lanpostu baliokide sortu zirela adierazten du. Horiei esker, EAEko ekonomian 943.000 enplegu zeuden epealdi horretan. Hala portzentajeen nola bolumenean, emaitza onenak zerbitzuetan jaso ziren (%2,2), baina industriak eta eraikuntzak (bi kasuetan %1,6 hazi zen) gorakada esanguratsua erakutsi zuten beren enpleguan. BPGaren eta enpleguaren konbinaketak iradokitzen du itxurazko produktibitatearen irabazia %1,0an kokatu zela, hots, aurreko hiruhilekoetako balioen zertxobait gainerik, baina balio historikotik (%1,1) oso hurbil.

Prezioei dagokionez, goranzko presio arina nabaritzen ari da, nahiz eta oraindik ez den kezkatzeko modukoa. Hain zuzen ere, BPGaren laugarren hiruhilekoko deflatoarea %1,3 izan zen, 2010eko amaieratik inoiz jaso den altuena. Igoera horren zati bat kontsumoko prezioen ondorioa da, beraren deflatoarea hamarren batzuk igo delako, eta beste zati bat kanpo merkataritzaren suspertzearen ondorioa da.


Aurreikuspen eredian sartu den azken informazioak adierazten du EAEko ekonomia %2,6 haziko dela 2018an, hau da, aurreko urtean baino hiru hamarren gutxiago bakarrik. Hazkunde horren osaera aurreko urteetakoen antzekoa izango da: barne eskaria sendo garatuko da eta kanpo saldoak ekarpen neutroa egingo dio BPGaren hazkundeari. Sektoreen ikuspegitik, bai industriak bai zerbitzuek aldakuntza tasa esanguratsuak lortuko dituztela aurreikusten da. Tasa horiek aurrekoen antzekoak edo zertxobait apalagoak bakarrik izango dira. Eraikuntzak, berriz, hazkunde txikiagoa izango du. Azkenik, 2018an 15.000 lanpostu garbi baino zertxobait gehiago sortuko dira eta langabezia tasa %10,0ra hurbilduko da. 2019rako lehen zenbatespenak iradokitzen du BPGa %2,2 haziko dela.

EKONOMIAREN INGURUNEA


2017ko laugarren hiruhilekoan, ekonomia jardueraren susperraldia orokorragoa izan zen eta baita biziagoa ere, munduko ekonomia garrantzitsuenek jaso zituzten hazkunde tasa esanguratsuek garbi erakusten dutenez. Izan ere, lehen zenbatespenen arabera, munduko BPGa %3,8 areagotu zen iazko laugarren hiruhilekoan. Datu horren ondorioz, 2017. urteko batez besteko gehikuntza tasa %3,7ra iritsi zen, aurreko bost urteetan eskuratu ziren tasa guztiak gaindituz.

Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko hazkunde tasak


AEB




Europar Batasuna



Txina



Brasil



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Azaleratzen ari diren ekonomietan, oro har, jarduerak datu positiboak erakutsi zituen eta, batez beste, %4,8 hazi ziren, aurreko hiruhilekoko emaitza berdinduz. Txinan, esportazioen bilakaera onak, gobernuak bultzatutako pizgarri neurri garrantzitsuek eta kontsumo pribatuaren gorakada sendoak bide eman zioten ekonomia jarduerari garapen indartsu eta egonkorrari eusteko. Horri esker, iazko azken hiruhilekoan bertako ekonomia %6,8 areagotu zen. Gorakada horren ondorioz, ekonomia txinatarra %6,9 hazi zen 2017ko batez bestekoan, merkatuaren igurikimenak eta gobernuak ezarri zuen hazkunde helburua (%6,5) gaindituz. Orobat, 2010etik lehenengo aldiz, ekonomia bizkortu zen.

Indian, urte hasieran nabaria zen Narendra Modiren gobernuak onartu zuen erabaki eztabaidatuaren eragina, delituaren eta diru ihesaren kontra borrokatzeko izendapen handieneko billeteak zirkulaziotik ateratzearena (desmonetizazioa), herrialdea likideziaz gabe hainbat hilekoz utzi zuelako. Harez geroztik, uztailaren 1ean, indarrean sartu zen ondasun eta zerbitzuen gaineko zerga berria (GST), estatuen eta gobernu zentralaren zeharkako 17 tasa eta tributu bateratu zituen. Neurri horrek ziurgabetasun handia ekarri zion ekoizpen arloari eta jarduera galgatu zuen. Halere, iazko azken hiruhilekoan, dena atzean geratua zela ematen zuen. Izan ere, inbertsioa sendo hazi zen berriro (%10,1) eta kontsumo pribatua %6,0 baino gehiago handitu zen. Horren ondorioz, BPGa %6,8 hazi zen. Tasa hori aurreko urteetakoa baino txikiagoa da, baina 2016ko bigarren hiruhilekotik bizi zen motelaldiari amaiera ematen dio.

Lehengaiak esportatzen dituzten herrialdeen artean, Brasilek susperraldia baieztatu zuen, laugarren hiruhilekoan bertako BPGa %2,2 hazi zelako. Kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren bultzadak argitzen dute gorakada hori. Inbertsioak lehen gehikuntza positiboa eskuratu zuen, bi urte eta erdiz etengabeko jaitsierak bildu eta gero. Bi hiruhilekoz tasa positiboak jasota, ekonomia brasildarraren susperraldia egiaztatuta geratu da (2017an %1,0), aurreko bi urteetan %3,5eko jaitsierak pilatu ondoren. Mexiko, berriz, gutxien hazi ziren ekonomien artean kokatu zen eta laugarren hiruhilekoan indarra galdu zuen berriro. Industria manufakturagilearen bilakaera ona eraikuntzaren eta petrolio meategien bizitasun faltak konpentsatu zuen. Hori dela eta, ekonomia mexikarra %1,5 bakarrik hazi zen, hots, lehen hiruhilekoaren erdia eta azken hiru urteetako hazkunderik txikiena.

Beste aldetik, ELGEko herrialdeen hazkunde datuak (%2,6) sendoak izan ziren. AEBak nabarmendu ziren (%2,5). Herrialde hartan, kontsumo pribatuari mesedea egin zioten inflazio apalak, lan merkatuaren egoera osasuntsuak, %4,1eko langabezia tasa batekin enplegu betean dagoela esan daitekeelako, eta, neurri txikiagoan, inbertsioak. Kanpo arloak hamarren bat kendu zion BPGari, inportazioak gehiago hazi zirelako. Urte osoko balantzean, BPGa %2,3 hazi zen, 2016ko emaitza zortzi hamarrenetan gaindituz. Kontsumo pribatuaren sendotasunari egoitzaz bestelako inbertsioaren susperraldia gehitu zitzaion, 2016ko beherakadaren ondoren indartsu berpiztu zelako.

Japonian, ekonomiaren jarduerak sendotasunari eutsi zion. Bertako BPGa %2,1 hazi zen iazko azken laurdenean. Beraz, hazkundea lau hiruhilekoz jarraian bizkortu da eta hiru urtez tasa positiboak lortu ditu. Halakorik ez da gertatu azken hamar urteetan. Yenak balioa galdu zuen iazko azken zatian eta 113 yen ordaindu ziren dolar baten truke. Horrek esportazioak bultzatu zituen (%6,7), bereziki Txinara eta AEBetara bidalitakoak. Orobat, oraindik egokitzailak diren baldintza finantzarioek inbertsioa eta kontsumo pribatua gorarazi zituzten, aurreko hiruhilekoan galdu zuen erritmoaren ondoren bizkortu baitzen. Hala eta guztiz ere, kontsumo pribatuaren hazkunde erritmoa oraindik ahula eta ezegonkorra da. Urteko balantzean, herrialde hartako BPGa %1,7 hazi zen, azken lau urteetako handiena baita. Japoniako gobernuaren beste kezka iturria prezioak dira. Urtebete batez %0,0aren inguruko tasak bildu ondoren, abenduan %1,1 igo ziren eta 2018ko urtarrilean, berriz, %1,3. Zehazkiago, 2017an KPI indizea %0,5ean kokatu zen. Tasa hori txikia den arren, eremu positiboan dago kokatuta.

Europar Batasuneko hedaldiak aurrera egin zuen iazko azken laurdenean (%2,6) eta zurrunbilo politikoek (Brexitak, Herbehereetako, Frantziako eta Alemaniako hauteskondeek, Kataluniako krisiak) zein ekonomikoek (Trumpen erabakiek) ez zuten kaltetu. Izan ere, hazkundea barne eskariaren gorakadan oinarritu zen, eta batez ere kontsumo pribatuaren bizitasunean, enpleguaren hobekuntzak, familien konfiantzak eta finantzaziorako baldintza onak lagunduta. Hala eta guztiz ere, agregatu horrek indar apur bat galdu zuen. Kanpo arloak ere lagundu zuen bide horretan, zazpi hamarren ekarriz, esportazioen bilakaera onari esker, munduko merkataritzaren hobekuntzaren ondorioz. Eremuko herrialde nagusien artean, BPGak hazkunde sendoa lortu zuen modu orokorrean. Esate baterako, gehikuntza handiagoak eskuratu zituzten Espainiak (%3,1), Alemaniak (%2,9) eta Frantziak (%2,5). Apalagoak izan ziren Italiaren (%1,6) eta Greziaren (%1,9) gehikuntzak.

Alemanian eta Frantzian, ekonomia jardueraren bultzagileak inbertsioaren bizitasuna eta esportazioen bultzada izan ziren, kontsumo pribatua zein publikoa oraindik suspertu gabe daudelako. Hala ere, Espainian kontsumo pribatua izan zen hazkundearen motorra. Inbertsioak ere, bereziki ekipamendurako ondasunetan eginikoak, ekarpen garrantzitsua egin zion ekonomia jarduerari eta kanpo arloak kendu zuen hamarrena konpentsatzea lortu zuen. Izan ere, kanpo eskaria BPGaren bultzagile nagusia izan zen krisi garaian, baina hiruhilekoz hiruhileko indarra galdu du. Dena dela, urteko balantzean hiru hamarren ekarri zituen, nahiz eta zenbaki hori urrun egon 2016an ekarritako zortzi hamarrenetatik. Eskaintzaren ikuspegitik, adar agregatu guztiek hazkunde positiboak jaso zituzten, salbuespen bakarra finantza eta aseguru jarduerak izan zirelarik, berriro behera egin zutelako. Jardueraren datu onak lan merkatuaren bilakaeran ere utzi zuten beren isla, lanaldi osoko 506.000 lanpostu baliokide sortu zirelako, 2016ko kopuruaren antzekoa baita. Horrek agerian uzten du lan merkatuaren bizitasun handia. Azkenik, kontsumoko prezioak urte hasieran %3,0ko mailan zeuden, argindarraren garestitze biziak baldintzatuta, baina apalduz joan ziren abenduko %1,1era arte. Datu hori bera da 2018ko otsailari egokitu zaiona.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa	2017	2017			
		I	II	III	IV
Azken kontsumoko gastua	2,2	1,9	2,2	2,1	2,5
- Familien gastua	2,4	2,2	2,4	2,4	2,5
- Administrazioaren gastua	1,6	1,0	1,5	1,4	2,4
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,0	4,9	3,9	5,6	5,6
Nazio eskaria (*)	2,8	2,5	2,5	3,0	3,2
Esportazioak	5,0	5,6	4,5	5,6	4,4
Inportazioak	4,7	4,5	3,1	5,9	5,2
BPG (m.p.)	3,1	3,0	3,1	3,1	3,1
Nekazaritza eta arrantza	3,7	5,0	3,7	4,2	2,0
Industria	3,7	3,0	3,4	3,9	4,6
Eraikuntza	4,9	4,5	4,9	4,9	5,4
Zerbitzuak	2,6	2,7	2,6	2,5	2,5
Produktuen gaineko zerga garbiak	4,2	4,1	4,6	4,2	3,7

Oinarri urtea: 2010. (*) BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena.
Iturria: Espainiako Estadística Erakundea (INE).

Europar Batasuneko BPGak azken sei urteetako erritmorik bizienean hazi zen bitartean, Erresuma Batuko ekonomiaren joera guztiz kontrakoa izan zen. Hain zuzen ere, 2015ean eta 2016an Erresuma Batuen gehikuntza tasak Europar Batasunarenen antzekoak izan ziren, %2,0aren ingurukoak, baina 2017ko laugarren hiruhilekoan %1,4 baino ez zen hazi, hogeita zortziek, oro har, lortu zuten %2,6aren aldean. Horixe da 2012ko erdialdetik Erresuma Batuak jaso duen tasarik txikiena. Kasu horretan, esportazioen moteltze garrantzitsuak ekarri zuen hazkundearen galga, inportazioak sendo hasi ziren bitartean, zeren eta kontsumo pribatuak eta inbertsioak aurreko hiruhilekoko emaitzen antzekoak eskuratu baitzituzten.

Jardueraren hobekuntza lan merkatura igaro zen, 2013ko hastapenetan hasitako hobekuntza leunari jarraipena eman ziolako. Izan ere, Europar Batasuneko langabezia tasa %7,3an kokatu zen urte amaieran –eta baita 2018ko urtarrilean ere-, 2016ko abenduko datuaren bederatzigarren beherago eta 2008ko urritik inoiz jaso duen tasarik txikiena dena. Eremua osatzen duten herrialde guztiek emaitzak hobetu zituzten 2016aren aldean, 2017. urtean zehar 2.000.000 lanpostu baino gehiago berreskuratu zirelako. Ekonomia jarduerak gorakada azpimarragarria izan zuen arren, inflazioa kontrolpean egon zen 2017an, ia beti %2,0ko helburuaren azpian. Urteko batez bestekoan, Europar Batasuneko KPIa %1,7an kokatu zen.

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ekonomiaren hazkundeak egonkortasuna erakutsi zuen berriro 2017ko laugarren hiruhilekoan eta beren BPGa %3,0 hazi zen urte arteko tasan neurtuta, aurreko hiruhilekoko zenbakia berdinduz. Urte osoko emaitza kontuan hartuta, hazkunde tasa %2,9ra iritsi zen, hots, 2016an lortutakoa baino bi hamarren bakarrik gutxiago. Horri esker, hiru urtez jarraian hazi da %3,0aren inguruan. 2017ko bigarren seiuhilekoaren emaitza lehenarena baino zertxobait handiagoa izan denez, pentsatzekoa da oraindik ez dela gauzatu bere garaian aurreikusi zen moteltzeko aldia. Bilakaera on horretan lagundu duten faktoreetako batzuk kanpo merkatuen bizitasuna, EBZren moneta politika egokitzalea eta ekonomia eragileen igurikimen baikorragoak dira. Alderdi horiek Euroguneko herrialdeei ere mesede egin zieten, oro har %2,7 hazi zirelako laugarren hiruhilekoan, urte osoan zehar bizkortzeko joera garbia erakutsiz.

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017			
			I	II	III	IV
BPG erreala	3,1	2,9	2,8	2,9	3,0	3,0
Nekazaritza eta arrantza	2,0	-3,0	4,2	-1,9	-1,9	-11,9
Industria eta energia	2,9	2,7	2,0	2,3	2,7	3,7
- Manufakturen industria	3,7	2,8	2,2	2,7	2,5	3,7
Eraikuntza	1,8	2,5	2,1	1,9	3,0	3,1
Zerbitzuak	2,8	3,1	3,0	3,2	3,1	2,9
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	3,3	3,7	3,9	3,7	3,8	3,1
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,1	2,7	2,3	3,1	2,6	2,9
- Gainontzeko zerbitzuak	2,8	2,8	2,7	3,0	3,0	2,7
Balio erantsi gordina	2,7	2,9	2,7	2,9	3,0	3,0
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,8	3,0	3,3	2,4	3,0	3,2

Iturria: Eustat.

Eskaintzaren ikuspegitik nabarmendu behar den ezaugarria da industriak eta zerbitzuek ordurako erakutsia zuten sendotasunari eraikuntzarena gehitu zaiola, bigarren hiruhilekoz jarraian %3,0aren inguruan hazi zelako, aurreko epealdietan hautematen zen susperraldia

finkatuz. Eraikuntzako koiuntura indizeak eskaini duen informazioaren arabera, sektorearen bultzada eraikinen ataletik bakarrik etorri da, obra zibilak oraindik hazteko zailtasunak erakusten dituen bitartean. Zehazkiago adierazita, Eustatek osatzen duen estatistika horrek kalkulatu du laugarren hiruhilekoan sektorearen jarduera %6,9 areagotu zela, aurreko hiruhilekoan baino askoz ere gehiago. Indizea osatzen duten bi osagaietatik, eraikinek %8,2ko urte arteko aldakuntza tasa eskuratu zuten, baina obra zibila ez zen gai izan gehikuntzen eremura itzultzeko eta %-2,2ko tasa eskuratu zuen, oraindik emaitza negatiboa dena, baina aurreko hiruhilekoetakoak baino nabarmen txikiagoa. Sektorearen gainontzeko koiuntura adierazleek pentsarazten dute jarduera horrek aldeko bilakaera izan duela, batez ere etxebizitzaren atalean. Izan ere, etxebizitza berriak eraikitzeak bisatuen kopurua oso modu esanguratsuan hazi zen iazko bigarren erdian, aldi berean etxebizitzaren salmentak berriro gora egin zuen bitartean.

JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017			
			I	II	III	IV
Industria						
Industria produkzioaren indizea	2,3	3,0	2,6	2,7	2,9	3,7
Negozio zifren indizea	0,5	9,1	13,3	4,4	10,5	8,4
Eskarien sarrera	1,5	7,9	0,0	8,5	14,2	11,7
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,7	1,8	2,0	1,8	1,6	1,7
Eraikuntza						
Eraikuntzaren koiuntura indizea	2,1	5,9	9,1	6,0	1,8	6,9
Etxebizitza berrietarako bisatuak	-13,4	26,7	-5,7	4,6	103,1	25,9
Etxebizitzaren salerosketak	12,2	5,4	7,1	1,9	8,4	4,6
Gizarte Segurantzako afiliazioa	0,0	1,8	1,8	1,6	1,6	2,0
Zerbitzuak						
Hegazkinen bidezko bidaiariak	7,6	9,2	5,2	12,2	5,4	14,2
Hoteletan igarotako gaualdiak	8,9	2,6	1,9	8,1	-0,9	2,7
Negozio zifren indizea	4,6	4,4	5,5	3,4	3,1	5,4
Zerbitzuen koiuntura indizea	2,9	1,8	2,1	1,4	1,8	2,1
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,2	2,2	2,1	2,4	2,2	2,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantzaren eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Laugarren hiruhilekoan, industria jarduerak ordurako nahiko bizia zen bilakaera areagotu zuen eta balio erantsiaren urte arteko gehikuntza tasa %3,7ra gorarazi zuen, bizkortzeko joera garbi

batean. Tasa horri esker, industria izan zen ekonomiaren sektore hedatzaileena. Manufakturen atalak ere %3,7ko gehikuntza tasa eskuratu zuen.

Industriaren bilakaera ona baieztatuta geratu da dagoeneko eskura dauden sektoreko datuetan. Beharbada haietako garrantzitsuena denak, hots, industria ekoizpenak, gehikuntza gero eta handiagoko joera horrekin bat egiten du eta urtarrilera arte, hori baita ezagutu den azkena, luzatzen ditu emaitza onak, hileko horretan %3,3ko tasa lortuta. Produktu moten sailkapenak adierazten du emaitza onenak ekipamendurako ondasunen ekoizpenak eskuratu zituela, laugarren hiruhilekoan %2,7 hazi zelako eta urtarrilean, berriz, %8,0. Bitarteko ondasunen bilakaera ere esanguratsua da, %5,0tik gorako aldakuntza tasak jaso zituelako 2017ko lau hiruhilekoetan. Beste muturrean, kontsumoko ondasunek, hala iraunkorrek nola iragankorrek, atzean utzi dituzte 2017ko gehikuntzak eta aurtengo urtarrilean jaitsierak izan zituzten. Azkenik, energiaren ekoizpena ez zen gai izan hirugarren hiruhilekoko bilakaera onari eusteko eta orain ahultasun handiagoko itxura ematen du. Hala eta guztiz ere, adar horretan horrelako gorabeherak ohikoak izaten dira.

Ekoizpeneko datuak osatze aldera, INEk zenbatesten duen negozio zifrak adierazten du 2017. urte osoan zehar aldagai horrek oso gehikuntza esanguratsuak lortu zituela, laugarren hiruhilekoan %8,4ra iritsi zena. Orobat, industriaren eskaera berriak gero eta handiagoak izan ziren urtea aurrera zihoan neurrian eta bigarren sei hilekoan emaitza onenak eskuratu zituen, laugarren hiruhilekoko urte arteko tasa %11,7an kokatu zelarik. Aldagai hori sektorearen adierazle aurreratu bat da eta iradokitzen du industriaren gaur eguneko hedaldiak datozen hiruhilekoetara ere luzatuko dela.

Zerbitzuek moteltzeko joera arina pairatu zuten 2017ko laugarren hiruhilekoan eta lehen hiru hiruhilekoetako %3,1etik laugarreneko %2,9ra igaro ziren. Jarduera taldeka eginiko analisiak adierazten du moteltze arin horren jatorria merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldean dagoela, lehen hiru hiruhilekoetako %3,8tik laugarreneko %3,1era apaldu duelako bere aldakuntza tasa. Hala eta guztiz ere, oraindik bera da balio erantsia gehien areagotu duen taldea. Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak barnean hartzen dituen taldeak hiru hamarrenetan hobetu zuen erritmoa, %2,9ra arte, eta gainontzeko zerbitzuak %2,7 handitu ziren, urtean zehar joera argirik erakutsi gabe.

Zerbitzuen balio erantsiak erakusten duen egonkortasuna sektore horretako koiunturako estatistika batzuetan ere hautematen da. Izan ere, INEk argitaratzen duen zerbitzuen negozio zifrak aldakuntza tasa esanguratsuak kateatu ditu ia 2015eko hasieratik eta 2017ko laugarren hiruhilekoan %5,4ko gehikuntza jaso zuen. Beste aldetik, turismoari lotutako estatistikek tonu hedatzaileari eusten diote. Zehazkiago seinalatuta, bidaiariaren airezko trafikoa %14,2 handitu

zen laugarren hiruhilekoan eta %9,2, berriz, urte osoan. Are gehiago, 2018ko urtarrileko datuak (%9,4) pentsarazten du aldagai hori sendo dagoela oraindik aurtengo hasieran ere. Orobat, hoteleko establezimenduetan igarotako gaualdiak %2,7 hazi ziren laugarren hiruhilekoan, urte osoko batez bestekotik hurbil.

Eustatek osatzen duen zerbitzuen koiuntura indizeak moteltze arina adierazten du sektorearen bilakaeran, urte amaieran %2,1eko gehikuntza bat jasota. Estatistika eragiketa horrek eskaintzen duen banaketak azaltzen duenez, sektorea osatzen duten bi taldeek antzeko tamainako gehikuntza eskuratu zuten. Alde batetik, merkataritza %2,2 hazi zen termino errealetan, gainontzeko zerbitzuak %1,9 hobetu ziren bitartean. Merkataritzako atalen artean, azpimarratzekoa da handizkako salmenta (%2,8), bereziki erdi landutako produktuena (%9,3) eta makineria eta ekipoarena (%2,1). Aitzitik, txikizkako salmentak (%0,1) norabide gorabeheratsuagoa erakutsi du, non elikagaiek (%1,4) automobilentzako erregaien salmentaren jaitsiera (%-2,0) konpentsatu duten. Gainontzeko zerbitzuen taldean, oso bestelakoak dira ostalaritzaren (%2,7), garraioaren (%4,4) eta lanbide jardueren (%2,7) bilakaera ona eta informazio eta komunikazioak adarraren beherakada (%-2,3).

BPGaren bilakaera egonkorra lan merkatura ere hedatu da, lanpostuen sorrera etengabe baten bitartez. Zehatz-mehatz adierazita, iazko laugarren hiruhilekoan, enplegua %2,0 gehitu zen. Beraz, dagoeneko ia hiru urtez jarraian kateatu dira zenbaki horren inguruko aldakuntza tasak pilatuz. 2017ko amaieran, EAEko ekonomiak zeuzkan lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopuruak 943.000 enpleguren langa gainditu zuen, hots, aurreko urtean zeudenak baino 18.400 gehiago.


Enplegua sortzeko orduan, zerbitzuak izan ziren berriro sektore dinamikoena, hala kopuruan nola portzentajeetan. Izan ere, guztira sortu ziren lanpostu guztietatik, ia 14.700 sektore horretan sortu ziren, urte arteko tasan %2,2ko gorakada jaso baitzuen. Beste aldetik, bai industriak bai eraikuntzak %1,6 handitu zuten beren langile multzoa, hurrenez hurren, 3.200 eta 900 lanpostu garbi direlarik. Aipatu diren zenbakien artean dagoen diferentzia lehen arloan galdu ziren 400 lanpostuek azaltzen dute.

Dagoeneko ezagunak dira 2018ko hainbat enplegu adierazle eta badirudi lan merkatuaren bilakaera onak jarraipena izango duela gutxienez aurtengo lehen hiruhilekoan ere. Hain zuzen ere, Gizarte Segurantzako afiliazioaren urtarrileko eta otsaileko datuek %2,2ko gehikuntza jaso dute urte arteko tasan, laugarren hiruhilekoan eskuratu zen %2,0aren zertxobait gaindituz. Erritmoaren bizkortze arin hori, oso bereziki, eraikuntzan gauzatu da, laugarren hiruhilekoko %2,0tik aipatu diren bi hileko horietako %2,6ra areagotu baita erritmoa, sektoreak bizi duen bizitasunaren ondorioz. Zerbitzuek ere hamarren batean hobetu zuten beren hazkunde


erritmoa, %2,3 arte. Gorakada horren arrazoietakoa bat administrazio publikoaren enpleguaren hazkundera da. Aitzitik, finantza eta aseguru jarduerak berriro gutxitu dituzte beren langile kopuruak, nahiz eta aurreko hiruhilekoetako bilakaerarekin alderatuta galera erritmoa apur bat leundu den.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza

Barne eta kanpo eskaria

Beste hiruhileko batez, EAEko ekonomiaren bultzagile nagusia barne eskaria izan zen eta %3,1 hazi zen urte arteko tasan, aurreko epealdiko emaitza berdinduz. BPGari eginiko ekarpena kalkulatu, barne eskariak 3,0 puntu eman zizkion, kanpo saldoak posizio neutroa erakutsi zuen bitartean. Horrek ez du esan nahi kanpo merkataritzak paper hutsala jokatu zuenik ekonomiaren hazkunderan. Alderantziz. Esportazioen gehikuntza biziak 3,1 puntu ekarri zizkion BPGari, hots, barne eskariak ekarri ziona baino hamarren bat gehiago. Hala eta guztiz ere, azken agregatu horren bultzadak kanpoko produktuen erosketareagotu zuen eta inportazioen gorakadak 3,1 puntu ere kendu zizkion BPGari, kanpo merkataritzako saldoa posizio neutro batean utziz.

Barne eskariaren gehikuntza tasa horrek (%3,1) jarraipena ematen dio zenbaki horren inguruko hazkundeak biltzeko denbora luze bati, dagoeneko hiru urte iraun duena, gorabehera batzuekin. Azpimarratzekoa da agregatu horren bi osagai nagusien sendotasuna, hots, azken kontsumoarena eta kapital eraketa gordinarena, aurreko hiruhilekoan jasotako aldakuntza tasaren antzekoa eskuratu zutelako.

Zehazkiago adierazita, azken kontsumoko gastuak %2,8ko gehikuntza jaso zuen, hala laugarren hiruhilekoan nola 2017ko batez bestekoan, urtean zehar aldakuntza gutxi izan zirelarik. Familien kontsumoa %2,8 handitu zen laugarren hiruhilekoan, iazko lehen hiru epealdietan eskuratu zuen datua baino bi hamarren beherago baitago. Lehenengo hiruhilekoa da non kontsumo pribatua BPGa baino gutxiago hazten baita. Gertakari hori, zikloaren fase honetan, ontzat jo behar da, zeren eta adierazten baitu familiak gastua errentaren sorkuntzara egokitzen ari direla, zorpetze handiago batean murgildu gabe. Enpleguaren sorrera bizia, konfiantza, interes tasa apalak, kreditua lortzeko erraztasuna eta inflazio neurritsua dira kontsumo pribatuaren bultzada oraindik nabarmen horren azpian dauden arrazoietako batzuk.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017			
			I	II	III	IV
BPG erreala	3,1	2,9	2,8	2,9	3,0	3,0
Gastua azken kontsumoan	2,9	2,8	2,9	2,6	2,9	2,8
- Familien gastua kontsumoan	3,1	3,0	3,0	3,0	3,0	2,8
- Adminis. gastua kontsumoan	2,3	2,4	2,6	1,2	2,7	2,9
Kapital eraketa gordina	3,1	3,5	3,0	3,2	3,9	3,8
- Ekipamendu ondasunak	5,3	4,7	4,2	5,4	4,5	4,6
- Gainontzeko inbertsioa	1,8	2,7	2,2	1,9	3,5	3,4
Barne eskaria	3,0	3,0	2,9	2,7	3,1	3,1
Esportazioak	1,7	3,0	1,5	1,9	3,7	4,8
Inportazioak	1,5	3,1	1,9	1,8	3,9	4,8

Iturria: Eustat.

Kapital eraketa gordina berriro izan zen barne eskariaren osagai dinamikoena, %3,8ko gehikuntza lortuta, hots, aurreko datua baino hamarren bakar bat gutxiago. Horri esker, 2017ko batez besteko emaitza %3,5era iritsi da, 2016koa lau hamarrenetan gaintutuz. Agregatu horretan azpimarratu behar den ezaugarria da urtean zehar birmoldatzea gauzatu dela bere bi

osagaien artean. Hain zuzen ere, ekipamendurako inbertsioa, aurreko urteetan atal dinamikoena izan baitzen, poliki-poliki apaldu da, laugarren hiruhilekoan %4,6an kokatu arte. Aitzitik, gainontzeko inbertsioak, suspertzeko bidean atzeratuago baitzegoen, emaitzak hobetu ditu eta urte amaieran %3,4ko gehikuntza eskuratu zuen. Eraikuntzaren berpiztea dago azken osagai horren bilakaeran.

KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017			
			I	II	III	IV
Kontsumoa						
Azalera eta kate handietako salmentak	1,8	2,3	2,7	1,9	3,4	1,4
Txikizkako merkataritza indizea	1,7	0,8	-0,1	0,7	2,6	0,1
Kontsumo ondasunen ekoizpena	0,2	2,5	2,7	4,2	0,8	1,9
Kontsumo ondasunen inportazioa	-0,5	4,2	6,3	-5,2	8,8	7,1
Turismoen matrikulazioa	5,3	7,3	8,3	2,0	5,2	13,7
Inbertsioa						
Ekipo ondasunen ekoizpena	8,7	0,0	0,7	-0,6	-3,6	2,9
Ekipo ondasunen inportazioa	13,4	5,5	10,1	0,6	9,2	3,1
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	3,6	7,8	7,9	-3,5	11,9	15,9
Etxebizitza berrientzako bisatuak	-13,4	26,7	-5,7	4,6	103,1	25,9
Lizitazio ofiziala	-18,0	75,1	-35,2	129,0	35,1	252,4

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Sustapen Ministerio, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Oro har, kapital eraketa gordinarekin zerikusia duten koitunturako adierazle guztiek aldeko emaitzak izan zituzten 2017ko amaieran. Esate baterako, ekipamendurako ondasunen ekoizpenak atzean utzi zuen urteko erdialdean izan zituen jaitsierak eta %2,9ko gorakada lortu zuen. Orobat, ondasun mota horren inportazioa %3,1 hazi zen laugarren hiruhilekoan. Beste aldetik, eraikuntzan eginiko inbertsioaren adierazle aurreratuek oso emaitza altuak izan zituzten, nahiz eta beraietan ohikoak izaten diren gorabehera handiak. Zehazkiago, etxebizitza berrietarako bisatuak %25,9 igo ziren eta lizitazio ofiziala hirukoiztu zen 2016ko laugarren hiruhilekoko datuaren aldean, urte osorako batez bestekoa %75,1ean utziz. Azkenik, zama ibilgailuen matrikulazioa %10,0 baino gehiago handitu zen 2017ko azken bi hiruhilekoetan, urteko batez bestekoa %7,8an utziz, hots, 2016koa halako bi.

Aipatua izan denez, kanpo saldoak BPGaren gehikuntzari eginiko ekarpena hutsala izan zen 2017ko laugarren hiruhilekoan, bai esportazioek bai inportazioek bizitasun handia erakutsi zuten arren. Hain zuzen ere, bi kasuetan urte arteko gehikuntza, termino errealetan, %4,8ra iritsi zen, aurreko balioak nabarmen gaindituz. Atzerriarekin eginiko salerosketen suspertze horren atzean hainbat arrazoi daude, hala nola espainiar ekonomiaren une gozoa, oraindik EAEko produktuen merkatu behinena baita, eta europar ekonomien bizkortzea, EAEk atzerrian saltzen duen guztiaren erdia hara bideratzen baita.

Ondasunen nazioarteko merkataritzaren suspertzea nabaria da atzerriarekin eginiko salerosketez Eustatek osatzen duen informazioan, Aduana Sailak biltzen dituen datuak erabilita. Estatistika eragiketa horren arabera, laugarren hiruhilekoan atzerrira esportatutako ondasunen balioa %11,1 handitu zen, aurreko hiruhilekoan (%12,7) eta urte osoko batez bestekoan (%10,5) jasotako zenbakietatik oso hurbil dagoen tasa baita. Horri esker, atzerrian saldutako produktu guztien balioa 23.857 milioi eurora iritsi zen 2017an, serie historiko osoan ezagutu den kopururik gorenera, alegia.

Energia alorreko produktuen esportazioak %25,0 handitu zuen bere balioa laugarren hiruhilekoan, urteko gainontzeko gehikuntza sendoekin bat eginez. Petrolioak nazioarteko merkatuetan izan duen bilakaerak zeharo baldintzatu du igoera hori, zeren eta epealdi horretan aurreko urtean baino %16,2 garestiagoa zelako. Analisia tonatan egiten bada, urte arteko aldakuntza nabarmen txikiagoa da, salmenta %2,5 baino ez zelako hazi.

Energiaz bestelako esportazioek ere gaur arte inoiz izan duten baliorik gorena eskuratu zuten, urte osoan 21.571 milioi eurora iritsi zirelako. Laugarren hiruhilekoan, lortutako gehikuntza tasa %9,6 izan zen, aurreko hiruhilekoko emaitza berdinduz. EAEko enpresek esportatzen dituzten hiru talde nagusiek aldakuntza tasa esanguratsuak jaso zituzten iazko azken laurdenean. Esate baterako, garraio materiala %17,5 hazi zen, aurreko hiruhilekoetan eskuratutako gorakada handiekin bat eginez. Beste aldetik, metal arruntak eta beren manufakturrek %13,8 areagotu zuten esportazioen balioa, aurreko epealdietako erritmo biziei jarraipena emanez. Makinak eta tresnek igoera neurritsuagoa (%3,3) izan zuten, baina urte osoko balantzea ere ona izan zen. Produktuen gainontzeko taldeetan, esportazio egituran pisu gutxiago baitute, hazkundeak txikiagoak izan ziren eta baita negatiboak ere kasu batzuetan, hala nola produktu kimikoetan (%-8,3) eta plastikoak eta kautxuan (%-0,4).

Salmenten banaketa geografia helburuen arabera lehengo modu berean garatu zen. Beraz, esportazio guztien %81,5 herrialde garatuetara bideratu ziren eta gainontzeko %18,5, berriz, ELGETik kanpo dauden herrialdeetara. Aurreko hiruhilekoan bezala, laugarren hiruhilekoan gehikuntza handiagoa izan zen garatuetan (%12,3), azaleratzen ari diren herrialdeetan

saldutakoa %6,2 handitu zen bitartean. Hala ere, urte osoko balantzean batzuen eta besteen arteko diferentziak nabarmen gutxitu ziren (%10,6 eta %9,9, hurrenez hurren).

ESPORTAZIOEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2016	2017	2017				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	-1,6	10,5	13,2	5,5	12,7	11,1	6.146.239
ELGE	1,0	10,6	12,0	5,3	13,4	12,3	5.007.605
Europar Batasuna	0,7	9,4	12,7	2,2	11,8	11,9	3.966.536
Frantzia	4,4	12,4	11,3	7,6	14,0	16,9	955.086
Alemania	-1,4	3,1	7,1	-5,8	4,8	7,7	955.382
Erresuma Batua	-9,4	16,6	21,4	12,3	24,1	9,9	361.154
Italia	-9,0	2,1	0,6	-6,3	8,3	7,3	286.334
AEB	-10,5	18,5	-5,1	17,4	49,3	16,9	489.278
ELGETik kanpokoak	-11,8	9,9	19,5	6,2	9,7	6,2	1.138.633

Iturria: Eustat.

AEBetara bideratutako esportazioak berriro areagotu ziren batez bestekoa baino gehiago, baina hirugarren hiruhilekoko emaitzara iritsi gabe. Herrialde horretan gehien saltzen den EAEko produktua erregai mineralak dira, merkatu horretara zuzendutako guztiaren herena baino gehiago biltzen duelako. Atal hori %9,8 handitu zen laugarren hiruhilekoan. Eskari handia duten gainontzeko taldeen artean, ibilgailu automobilen gehikuntza sendoa azpimarratu behar da, %153,8ra iritsi zelako, salmenta guztien %13,4 bereganatuta dagoeneko. Orobat, galdaketa manuakturen portaera ere bikaina izan zen (%130,4) eta hori da EAEko esportazioen beste zutabe bat. Hala ere, talde horren etorkizuneko bilakaera mehatxupearan dago, herrialde hartako presidentek altzairuan eta aluminioan iragarri duen arantzel igoeraren ondorioz. Azkenik, makineriaren salmentak hobera egin zuen, baina aldakuntza tasa txikiagoak jasota.

EAEko ekonomiaren atzerriko merkatu behinena Europar Batasuna da, atzerrira bidalitako guztiaren ia bi herenak biltzen dituelako. Helburu horrek %11,9 areagotu zituen erosketak laugarren hiruhilekoan, aurreko emaitzatik hurbil dagoela. Eremu horretara esportatzen denaren egiturari pisu gehien (%30,5) daukan atala automobilak dira eta %17,3 gehiago saldu ziren. Haren ondotik garrantzia gehien daukan taldea erregai mineralena da, salmentak %39,6 areagotu zituztela. Aitzitik, makineria mota batzuek, horiek ere pisutsuak baitira egiturari, %4,8 gutxitu zuten salmenten balioa.

EAEko produktuen merkatu nagusia izateko lehian, laugarren hiruhilekoan Frantzia atera zen garaile, nahiz eta Alemaniaren zenbakiak oso antzekoak izan ziren. Frantzian saltzen den guztiaren bostenak harremana dauka ibilgailu automobilekin, epealdi horretan %13,3 igo baitzen. Merkatu horretan erregai mineralek ere pisu garrantzitsua daukate eta petrolio garestitu zen arren %8,8 murriztu zuten salmentaren balioa. Azkenik, galdaketa eta bere manufakturekin lotura duten ondasunek aldakuntza tasa kontrajarriak jaso zituzten.

EAEren eta Alemaniaren arteko merkataritza harremanen kasuan, automobilen nagusitasuna erabatekoa da. Ibilgailu automobilen taldeak berak merkatu horretan saltzen diren EAEko produktu guztien erdia biltzen du. Atal horrek esportazioen balioa %12,7 areagotu zuen. Horri gehitu behar zaio kautxua eta bere manufakturen atala, %13,1eko hazkundera jaso baitzuen. Pisu nabarmena duten beste ondasun talde batzuk galdaketa produktuak eta makineria dira. Bietan urte arteko gehikuntzak lortu ziren.

Erresuma Batuarekin dagoen merkataritza ere, neurri handi batean, ibilgailu automobiletan oinarritzen da, herrialde horretan saldutako guztiaren herena baino gehiago direlako. Ondasun talde horrek %36,8 areagotu zituen esportazioak. Burdina eta altzairu galdaketak %15,3ko gehikuntza jaso zuen laugarren hiruhilekoan, makinek, bereziki elektrikoek (%-0,9), geldialdia bizi zuten bitartean. Italiari dagokionez, esportazioen guztizkoa %7,3 baino ez zen hazi, aurreko hiruhilekoko emaitzatik gehiegi alendu gabe. Merkatu horretan ere pisu esanguratsua du automobilgintzak, bereziki ibilgailu automobilen atalak, baina baita kautxua eta bere manufakturenak ere. Biek aldakuntza tasa positiboak lortu zituzten, baina neurri batean konpentsatuta geratu ziren makineriaren esportazioen bilakaera negatiboarekin.

Garapen bidean dauden herrialdeen multzora bidalitako esportazioek %6,2 handitu zuten beren balioa laugarren hiruhilekoan. Helburu horretara doazen produktuen osaera ez da herrialde garatuetara doana bezalakoa. Izan ere, erregai mineralek pisu handia daukate herrialde horietara bidalitako egituran eta ibilgailu automobilek ere esportazioen egituran pisu gehien duten atalen artean egon arren, daukaten pisua herrialde garatuetan daukatena baino zertxobait txikiagoa da. Zehazkiago adierazita, erregai mineralen salmenta %51,6 handitu zen laugarren hiruhilekoan. Ibilgailu automobilen esportazioa, berriz, %21,8 areagotu zen eta makineria elektrikoarena %22,6. Txanponaren ifrentzuan, galdaketa manufakturek %12,1 gutxitu zuten salmenta eremu horretan. Herrialdeka, atzeraldia gainditzen ari diren herrialde petrolio esportatzaileetan saldutakoak hobekuntza esanguratsua izan zuen. Esate baterako, Errusiak eta Brasilek, hurrenez hurren, %19,3 eta %33,2 handitu zuten EAEko produktuen erosketa. Kontrakoa da Txinaren kasua, berriro murriztu zituelako EAEko ondasunen erosketa, oraingoan %9,0. Hala ere, Txina da oraindik azaleratzen ari den merkatu behinena.

Atzerritik inportatutakoaren gehikuntza ere garrantzitsua izan zen eta laugarren hiruhilekoan %13,9ko urte arteko tasa jaso zuen, esportazioenaren antzekoa baita. Erregai mineralen erosketa %19,6 hazi zen, oraindik tasa nabarmena delarik, nahiz eta iazko lehen hiru hiruhilekoetakoa baino askoz ere txikiagoa den. Beste aldetik, inportatu ziren energiaz bestelako produktuen balioa %11,8 handitu zen. Beraien artean, makinak eta tresnen bilakaera negatibo samarra izan zen, %0,6 mugatu bat jaitsi zelako. Gainontzeko taldeek garbi hobetu zuten aurreko urteko salmentaren balioa. Izan ere, metalak eta beren manufakturek %22,8ko tasa lortu zuten eta produktu kimikoek (%15,1), nekazaritzakoek (%12,9), plastikoak eta kautxuak (%14,8), garraio materialak (%18,2) eta paperak (%13,5) batez bestekoaren inguruko gehikuntzak eskuratu zituzten.

Laugarren hiruhilekoan, inportazioen gehikuntza nabarmen handiagoa izan zen garapen bidean dauden herrialdeetan (%26,5), ELGEko partaideak diren ekonomietan erositakoa %8,9 hazi zen bitartean. Inportazioen eremukako banaketak protagonismo handiagoa ematen die garatzen ari diren herrialdeei, erosketa guztien %31,2 bereganatzen dutelako, salmenten banaketan %18,5 bakarrik biltzen duten bitartean. Bi pisu horien arteko aldea erregai mineralen eskutik iristen da, bereziki herrialde horietatik ekartzen direlako. Izan ere, azaleratzen ari diren herrialdeetan erositako guztiaren erdia baino gehiago erregai mineralak dira.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2016	2017	2017				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	-8,0	20,5	34,9	12,9	22,5	13,9	4.756.099
ELGE	-7,7	17,8	42,9	2,6	23,0	8,9	3.273.242
Europar Batasuna	-8,1	13,4	36,5	1,1	14,2	5,6	2.687.982
Frantzia	9,5	6,8	13,3	-2,3	11,7	5,4	727.997
Alemania	-8,9	12,0	14,4	1,0	14,2	18,9	501.098
Erresuma Batua	-51,7	62,8	535,1	-1,3	76,5	-26,5	245.420
Italia	3,5	7,7	18,2	-1,7	7,1	9,9	250.062
AEB	-3,9	18,8	37,0	-13,0	39,2	34,3	137.372
ELGETik kanpokoak	-8,5	26,9	18,2	42,4	21,6	26,5	1.482.857

Iturria: Eustat.

Erregai mineralen erosketaren jatorriak eragina dauka eremu bakoitzaren emaitzaren bilakaeran. Izan ere, hirugarren hiruhilekoan Mexiko izan zen produktu horien hornitzaile

nagusia, baina laugarrenean paper hori Libiak bereganatu zuen. Hala ere, bost hornitzaile nagusien arteko aldeak aurreko hiruhilekoetakoak baino txikiagoak izan ziren, bost horietatik 100 eta 150 milioi euro bitarteko kopuruak ekarri zirelako. Dagoeneko aipatu diren bi herrialde horiez gain, Nigeria, Norvegia eta Errusia dira EAEn erregai gehien saldu dutenak, nahiz eta Errusian, Mexikon, Venezuelan eta Gabonen erosi ziren kantitateak aurreko urteko epealdi berean erositakoak baino askoz ere txikiagoak izan ziren.

EAEko ekonomiaren hornitzaile nagusia Alemania da oraindik, baina laugarren hiruhilekoan herrialde horretan erositakoaren balioa %5,4 bakarrik hazi zen. Herrialde horretatik inportatutako produktuak, nagusiki, makineria (gutzizkoaren %40) eta ibilgailu automobilak (ia %20) dira. Lehenengoek jaitziera txikia izan zuten eta bigarrenek, ordea, %21,2ko gehikuntza nabarmena eskuratu zuten. Frantziari dagokionez, hura baita EAEko bigarren hornitzaile atzerritarra, inportatu ziren produktu nagusiak burdina eta altzairu galdaketa (guztiaren %21,9) eta makinak (%17,3) izan ziren. Hala batzuek nola besteek aldeko bilakaera erakutsi zuten iazko amaieran. Bi herrialde horietatik urrun kokatzen dira Erresuma Batua eta Italia. Lehenengotik %26,5 gutxiago inportatu zen aurreko urteko epealdiaren aldean, erregai mineralen mendekotasunak baldintzatuta. Italiatik %9,9 gehiago ekarri zen, burdina eta altzairu galdaketaren bilakaera onari esker (%23,8).

Garapen bidean dauden herrialdeetatik, gorago aipatu diren erregai mineralez gain, makinak eta tresnak ere inportatzen dira kopuru handian, erositako guztiaren %10 baino gehiago biltzen baitu. Halaber, burdina eta altzairu galdaketako produktuak ere ekartzen dira. Bi talde horietatik igoera txikiak izan zituzten eremu horretan, neurri handi batean Txinatik ondasun horietatik gutxiago inportatu zelako. Aitzitik, herrialde horrekin egiten ari den merkataritzan espezializazio bat hautematen da automobilgintzan, gero eta pisu gehiago hazten ari delako eta EAEn %21,7 gehiago saldu zuelako.

Esportazio eta inportazio guztien arteko aldeak 1.390 milioi euroko merkataritza saldoa utzi zuen laugarren hiruhilekoan. Diru kopuru hori eta aurreko epealdietan lortutakoak antzekoak dira. Ohikoa denez, energia alorreko saldoa negatiboa izan zen eta 571 milioi eurora iritsi zen, energiaren bestelako saldoa EAEn aldekoa izan zen bitartean eta 1.961 milioi euroan kokatu zen, aurreko hiruhilekoetako emaitzetatik hurbil. Urte osorako balantzean, gutzizkoaren saldoa 5.204 milioi eurora heldu zen, azken bost urteetan lortutako superabitekin bat egiten duen kopurua baita. Beste aldetik, energiako saldoa -2.814 milioi eurora iritsi zen, energiaren bestelakoa 8.018 milioi eurokoa izan zen bitartean. Saldoak EAEn aldekoak dira herrialde garatuekin eginiko salerosketetan eta kontrakoak garapen bidean dauden herrialdeekin bideratutako harremanetan.

Prezioak, soldatak eta kostuak

Prezioen portaera aztertzen duten adierazle batzuek urte amaieran erakutsi zituzten baliorik txikienak. Hala ere, oso bestelakoa izan zen barne ekoizpenaren prezioek, BPGaren deflatorearen bidez hurbilduta, izan zuten goranzko joera. Adierazle horrek hiru hamarreneko bizkortzea aurkeztu zuen hirugarren hiruhilekoko datuaren aldean, %1,0tik %1,3ra igarota. Urte osoko batez bestekoan, deflatorea %1,0 igo zen eta berez balio hori txikia den arren eta EBZk inflaziorako ezarri zuen erreferentziatik urrun badagoen ere, azken zazpi urteetako altuena da. Urte amaierako gorakada txiki hori kanpoarekiko harremanen suspertzeari lotuta dago, barne eskariaren deflatoreak %0,8an jarraitu zuen bitartean.

Aldi berean, KPIak gorakada bizia ezagutu zuen 2017ko hastapenetan (%2,9 urtarrilean eta otsailean) eta moteltzea ondoko hilekoetan, ekaina arte (%1,5), energia alorreko produktuen salneurriaren bilakaerak baldintzatuta. Harez gerostik, nahiko hazkunde egonkorra izan du eta beheranzko joera arina urte amaieran (%1,1), 2018ko lehen hilekoetan gorabehera txiki batzuekin (%1,0), argindarraren prezioak eraginda.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

	2016	2017	2017		2018	Ekarpena
			III	IV	Otsaila	
Inflazio osoa (%100)	0,0	2,0	1,8	1,4	1,0	1,0
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,9	1,1	1,3	0,8	1,0	0,8
- Elikagai landuak (%14,3)	0,9	0,0	0,3	0,8	1,1	0,1
- Industria ondasunak (%24,5)	0,8	0,3	0,3	-0,4	-0,1	0,0
- Zerbitzuak (%43,1)	1,1	1,7	2,0	1,5	1,6	0,7
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,2	6,5	4,1	4,2	1,0	0,2
- Landu gabeko elikagaiak (%7,8)	2,6	3,7	1,8	4,2	0,6	0,1
- Energia (%10,4)	-8,2	8,2	5,3	4,1	1,3	0,1

Iturria: INE.

Zehazkiago adierazita, petrolioaren prezioak goranzko joera erakutsi zuen iazko azken hilekoetan eta 70 dolarren inguruko balioak markatu zituen, otsailean eta martxoaren lehen erdian 65 dolarretara jaistea lortu bazuen ere. Moteltze txiki hori AEBetako petrolio gordinaren ekoizpen handiagoak ekarri du, *shale oil* motako lehengai gehiago aterata. Horrek are beherago

eraman dezake petrolioaren salneurria, beste herrialde ekoizle batzuek prezioari eusteko ekoizpena murriztu duten arren. Hala ere, ezin dira ahaztu Ekialde Hurbilen dauden tentsio politikoetatik eratorritzen diren eskaintza arazoak eta Txinaren eskari bizia, gaur eguneko prezioak igoarazi ditzaketelako. Dena dela, petrolioaren aldakuntza eurotan neurtuta txikiagoa izan da, Europako diruak balioa irabazi duelako, orain iaz baino %16,0 gehiago balio duelako.

Petrolioaren salneurriaren bilakaerak eragin handiagoa izaten du EAEko kontsumoko prezioetan Eurogunekoetan baino eta igotzen denean, EAEko KPIa Europakoaren gainetik kokatu ohi da eta jaisten denean, berriz, azpitik. Lehengai horrek une hauetan prezioan eskaintzen duen nolabaiteko egonkortasunari esker, Eurogunearikiko inflazio tartea hutsala da. Hain zuzen ere, 2018ko otsailean EAEko KPIa, Europakoarekin guztiz alderagarria ez den arren, %1,0ko igoera izan zuen eta Euroguneko KPIH %1,2an kokatu zen.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017				2018
			I	II	III	IV	
Indize orokorra	0,0	2,0	2,7	2,0	1,8	1,4	1,0
Janariak eta alkohol gabeko edariak	1,6	1,2	1,3	1,0	0,7	2,0	0,9
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,4	1,7	1,6	1,7	1,6	1,7	1,5
Jantziak eta oinetakoak	0,8	0,7	0,9	0,8	0,8	0,4	0,6
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	-4,1	3,7	5,7	4,5	2,7	1,9	1,3
Etxeko hornidura	0,5	-0,3	0,4	-0,3	-0,6	-0,8	-0,1
Medikuntza	1,0	1,1	1,4	1,5	1,1	0,4	0,1
Garraioa	-1,8	4,3	7,4	3,7	3,2	2,7	1,1
Komunikazioak	2,6	1,3	2,0	1,9	1,0	0,5	2,4
Aisia eta kultura	-1,0	1,9	1,4	2,9	2,0	1,3	1,0
Irakaskuntza	0,6	1,6	1,5	1,6	1,6	1,5	1,0
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,0	1,8	1,1	1,9	2,4	1,9	1,7
Besteak	1,7	0,7	1,4	1,0	0,4	0,1	0,6

Iturria: INE.

Energiako produktuen bilakaera albo batera utzita, azpiko inflazioak %1,0aren azpiko erregistroak markatu zituen iazko azken zatian eta oraindik ez du goranzko joera iraunkorreko zantzu garbirik erakutsi. Zehatz-mehatz adierazita, urteko batez bestekoa %1,1 izan zen eta ezagutu den azken hilekoko, otsailekoa, %1,0. Beraz, berriki gorabehera txikiak izan dituen arren, ez da presio inflaziogilerik hautematen. Azpiko inflazioaren osagaien artean, landutako

elikagaiak igoera zertxobait bizkortu zuten. Aitzitik, industriako ondasunek eta zerbitzuek hazkundera moteldu zuten. Industriako ondasunen kasuan, apaltzeko joera horrek aldakuntza tasa negatiboetara eraman zuen.

Beste aldetik, hondar inflazioa osatzen duten taldeek nabarmen leundu zituzten beren aldakuntza tasak 2018ko hasieran. Hain zuzen ere, landu gabeko elikagaiak %0,6 garestitu ziren aurtengo otsailean iazkoarekin alderatuta. Energiako produktuak, berriz, %1,3 igo ziren, 2017an batez beste garestitu ziren %8,2tik oso urrun. Bilakaera horien ondorioz, hondar inflazioa ere %1,0an kokatu zen.

Industriako prezioak, KPIa bezala, petrolioaren salneurriek eragin zuten presioaren arabera mugitu ziren. Izan ere, 2017ko lehen hilekoetan, IPRIk gehikuntza tasa altuenak markatu zituen, aldakuntzak %4,6ra iritsi baitziren. Hala ere, urte amaieran erregistroak txikiagoak izan ziren (%2,6) eta are apalagoak 2018ko hastapenean (urtarrilean %1,8an kokatu zen). Berrito ere, energiaren atalak baldintzatu zuen gehien joera aldaketa hori, zeren eta 2017ko hasieran hazkunderik bizienak jaso ondoren, 2018ko urtarrilean, argitaratu den azken hilekoa baita, beraren aldakuntza tasa %0,2ra apaldu baitzen. Energiak bezala, gainontzeko osagaiek ere tasa neurritsuak izan zituzten. Salbuespen bakarra bitarteko ondasunak izan ziren, urtarrilean %3,5 garestitu zirelako.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2016	2017	2018
Indarrean dauden hitzarmenak:	0,7	0,6	1,0	1,6	1,7
- Urtean zehar sinatutakoak	0,5	0,8	1,2	1,6	2,3
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	0,8	0,6	1,0	1,5	1,7
- Enpresako hitzarmenak	0,6	0,6	1,2	1,6	1,6

(*) 2018ko urtarrila arte erregistratutako hitzarmenak.
Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Hitzarmen kolektiboei dagokienez, adierazi behar da 2017an zehar adostutako soldata gehikuntzak areagotu zirela %1,6an kokatu arte, aurreko urteetako igoerak gaindituz. Berrito ere, ez da alde handirik hautematen urtean zehar sinatutako eta aurreko urteetan adostutako hitzarmenen artean. Orobat, ez dago diferentzia garrantzitsurik enpresa mailan eta sektore

mailan adostutako hitzarmenen artean. 2018ko negoziazio kolektiboaz eskuragarri dagoen informazioa oraindik oso urria da, baina badirudi soldaten igoeren prozesuak aurrera jarraitzen duela, batez besteko gehikuntza tasa %1,7 baita eta lehen hilekoetan sinatutako hitzarmenen soldata igoera %2,3ra iritsi baita.

Azkenik, INEk argitaratzen dituen langile bakoitzeko lan kostuek hazkunde esanguratsuak erakutsi zituzten iazko bigarren erdian, nahiz eta urte osoko emaitza askoz ere apalagoa (%0,5) izan zen bitartean. Are gehiago, soldata kostuak eta gainontzekoak banatzen badira, ondorioa da lehenengoak %0,1 bakarrik igo zirela 2017ko batez bestekoan, bigarrenak %1,6 handitu ziren bitartean. Ekonomia sektorearen arabera, gehikuntza tasa handiena industrian jaso zen berriro, hala laugarren hiruhilekoan (%4,0) nola urte osoko balantzean (%2,9). Aitzitik, eraikuntzak %1,5 gutxitu zuen bere lan kostua 2017an, zerbitzuek %0,5eko murrizketa izan zuten bitartean.

Lan egindako ordu bakoitzeko lan kostuaren analisiak antzeko egoera bat erakutsi zuen eta urte osoko batez bestekoan %0,2 baino ez zen handitu. Kasu horretan, soldata kostuak behera egin zuen (%-0,2) eta gainontzeko kostua %1,2 areagotu zen. Estatistika eragiketa horren beste ezaugarri bat lan egindako orduen kopurua da, aurreko urtekoan benetan egin zirenen aldean 2017an ez baitzen aldaketarik egon. Azkenik, azpimarratu behar da bete gabe dauden lanpostuen kopurua, oraindik oso gutxi diren arren (4.578 laugarren hiruhilekoan), %16,6 hazi zela laugarren hiruhilekoan aurreko urteko epe beraren aldean. Horrek %0,5eko ratioa uzten du EAEn, Europar Batasuneko batez bestekoa %2,0 den bitartean.

LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017			
			I	II	III	IV
Lan kostu guztiak langileko	-0,9	0,5	0,8	-1,3	1,1	1,2
- Soldata kostua guztira	-1,1	0,1	0,0	-1,7	1,1	0,8
- Bestelako kostuak	-0,3	1,6	2,9	-0,1	1,1	2,4
Lan kostu guztiak orduko	0,4	0,2	-4,2	6,6	-1,8	0,7
- Soldata kostua guztira	0,2	-0,2	-4,9	6,1	-1,7	0,3
- Bestelako kostuak	1,0	1,2	-2,2	8,0	-2,0	2,0
Adostutako lan orduak	-0,6	-0,1	-0,3	-0,4	0,1	0,1
Benetan egindako lan orduak	-1,0	0,0	5,2	-7,4	3,0	0,4

Iturria: INE.

Arlo publikoa

Zerga bidezko diru bilketaren 2017ko datu ofizialek egin ziren zenbatespenak baieztatu eta gainditu zituzten. Orobat, 2005etik inoiz jaso den gehikuntzarik handiena jaso zuen, %11,8ra iritsita. Zehazkiago adierazita, termino absolutuetan foru aldundiek 14.473,9 milioi euro eskuratu zituzten, hots, aurreko urtean baino 1.523,2 milioi gehiago. Hala ere, gehikuntza hori, neurri handi batean, BEZaren doikuntza positiboaren ondorioa da. 2007-2016 epealdirako Kupoaren likidazioaz berriki lortu zen akordioa sinatu arte, agertzen ziren desadostasunei behin-behineko erantzuna ematez zitzaien eta Estatuak foru aldundiei BEZaren diru sarrerak orekatzeko egin behar dizkien transferentzietan atxikipen bat ezartzen zuen. Akordioa 2017an izenpetu eta gero, BEZ zergan ezohiko diru sarrera lortu da, datozen ekitaldietan berriro eskuratuko ez dena.

Berriro ere, diru bilketaren hazkundearen gakoetako bat zuzeneko zergak izan dira, foru ogasunei 6.615,9 milioi euro eman zizkielako, 2016ko kopuruaren aldean %7,2ko gorakada delarik. Atal horretan, bai PFEZ bai sozietateen zerga aurreikusitakoa baino gehiago hazi ziren. Zerga horietako lehena %6,0 gehitu zen, enpleguaren hobekuntzaren ondorioz, eta, hori dela eta, nominetan egiten diren atxikipenak ere areagotu ziren. Beraz, lanaren atxikipenen bidez bildutako dirua %3,7 handitu zen.

Beste zuzeneko zerga nagusiaren, hots, sozietateen zergaren, bilakaera ere esanguratsua izan zen eta azken urteetako gorakadarik handiena (%10,9) eskuratu zuen. Kontura eginiko ordainketa sisteman egin ziren hainbat aldaketaz gain, enpresen marjinen hobekuntzak bidea ireki zuen zerga horrek aurreko urteetako jaitsierak atzean uzteko.

Zeharkako zergei dagokienez, beren hazkundeak apalagoak izan ziren. Esate baterako, eta BEZarekin hasita, %2,3an kokatu zen gehikuntza tasa, kontsumo pribatuaren igoera nominalaren azpitik (%3,9), beharbada itzulketen gehikuntzarengatik. Hala eta guztiz ere, gorago aipatu denez, Estatuarekin adostutako doikuntzei esker, BEZaren saldo guztia nabarmen handiagoa izan zen.

Azkenik, zerga bereziek ere hazkunde positiboak lortu zituzten, hidrokarburoetan oinarrituta, aurreko urteko emaitzaren aldean diru bilketa handitu zuen zerga haietako bakarra izan zelako (%5,4). Gehikuntza hori ekonomiaren susperraldiaren ondorioa da, zergaren karga saldutako litroen kopurura lotuta baitago, erregaien salneurriak izaten dituen gorabeherak inolako eraginik ez duten bitartean.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (2017ko urtarriletik abendura)

Mila euro

ZERGAK	Diru bilketa			
	2016	2017	% Aurrek.	% Ald. 17/16
PFEZ	4.839.847	5.132.194	102,3	6,0
- Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikipenak	4.597.695	4.767.619	100,3	3,7
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	150.658	166.782	106,8	10,7
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	79.468	80.996	100,8	1,9
- Ondare irabazien atxikipenak	29.460	44.768	139,0	52,0
- Loteria eta apustu jakin batzuen g/zerga bereziak	15.347	24.169	71,7	57,5
- Prof. eta enpresarien ordainketa zatikatuak	148.841	158.761	100,0	6,7
- Kuota diferentzial garbia	-181.621	-110.901	56,4	38,9
Sozietateen gaineko zerga	1.002.703	1.111.661	118,8	10,9
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	150.658	166.782	100,3	10,7
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	79.468	80.995	106,8	1,9
- Ondare irabazien atxikipenak	29.460	44.768	100,8	52,0
- Kuota diferentzial garbia	743.117	819.115	122,8	10,2
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	-2.389	33.233	-	-
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	110.978	117.912	95,6	6,2
Ondarearen gaineko zerga	161.328	163.227	94,0	1,2
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.	24.323	24.823	95,2	2,1
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	32.135	32.847	91,7	2,2
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA	6.168.926	6.615.897	104,8	7,2
BEZaren bertoko kudeaketa	3.676.456	3.762.184	96,4	2,3
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	121.348	144.420	117,4	19,0
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	39.197	38.854	81,2	-0,9
Garraiobide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	17.947	21.733	118,5	21,1
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.643.568	1.671.354	95,8	1,7
Aseguru sarien gaineko zerga	74.176	75.694	97,3	2,0
Joko jardueren gaineko zergak	4.943	5.957	119,3	20,5
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	2.521	4.164	103,7	65,2
Iraungitako zergak	-9.587	-7.615	58,7	20,6
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	5.570.567	5.734.743	95,7	2,9
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	120.701	106.798	90,4	-11,5
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	11.860.194	12.457.438	100,9	5,7
BEZaren doikuntza	1.337.949	2.274.142	160,8	70,0
Zerga berezian doikuntza	-247.417	-257.652	100,4	-4,1
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	12.950.726	14.473.928	107,2	11,8

Iturria: Foru aldundiak.

Arlo finantzarioa

2017ko azken zatian, baldintza finantzarioak nahiko egonkor mantendu ziren. Bilakaera hori epe luzerako interes tasen eta bono alemaniarrarekiko diferentzialen jaitsiera neurritsuaren ondorioa izan zen. Halaber, euroaren truke tasak eta burtsen kotizazioek erakutsi zuten egonkortasunak, gorabehera gutxi bizi zituztelako, ere lagundu zuten. Neurri handi batean, joera horiek 2018ko lehen hilekoetan ere mantendu ziren.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK

	2016	2017	2017						
			Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Aben.	Urt.	Otsaila
Banku Zentralen interes tasak (%)									
Europako Banku Zentrala	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Erreserba Federala	0,75	1,50	1,25	1,25	1,25	1,25	1,50	1,50	1,50
Japoniako Bankua	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10
Ingalaterrako Bankua	0,25	0,50	0,25	0,25	0,25	0,50	0,50	0,50	0,50
Txinako Bankua	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35
Brasilgo Banku Zentrala	13,75	7,00	9,25	8,25	7,50	7,50	7,00	7,00	6,75
Alemaniako 10 urteko zor publikoarekiko aldea (oinarri puntuak)									
Espainia	119	114	107	116	110	109	114	75	88
AEB	224	198	183	187	202	202	198	203	221
Portugal	357	151	256	191	170	152	151	125	133
Erresuma Batua	103	76	79	91	97	95	76	81	94

Iturria: Europako Banku Zentrala eta Espainiako Bankua.

Hamar urtez moneta politika ezin laxoagoa eta ohiz kanpoko neurriak erabili ondoren, munduko ekonomiak erakutsi dituen egonkortasunak eta sendotasunak banku zentral nagusietako batzuk bultzatu zituzten beren politikak normalizatzeraz eta pizgarri batzuk kentzeraz. Europako Banku Zentralak (EBZ) 30.000 milioi eurora murriztu zuen aktiboen erosketa eta kendu zuen programa horren erosketak handitzeko erreferentzia, hala tamainan nola denboran, baldin eta ingurunea okertzen bazen. Beste aldetik, abenduan esku hartzeko tasa %1,5ean kokatu eta gero, Fed-ek igoera gehiago aurreikusten ditu 2018an zehar. Orobat, jarraipena eman zion bonoen eta hipoteketan oinarritutako aktiboen erosketa murrizteari. Hala ere, Ingalaterrako, Japoniako eta Txinako Bankuek, oraingoz, interes tasak eta pizgarrien plangintzak bere horretan uztea erabaki zuten. Moneta politika normalizatuko delako igurikimenez zor subiranoaren errentagarritasuna igoarazi behar zuten arren, Espainian eta Portugalen ekonomia aldagaien hobekuntzak lagundu

zuen zor subiranoaren errendimendua goranzko joerari atxikitzen eta, horrekin batera, arrisku sariak baxu segitzen. Hala eta guztiz ere, AEBetan, interes tasak berriro gehituko direlako aurreikuspenari zerga erreforma gehitu zitzaion. Horren ondorioz, Altxorraren hamar urterako bonoen errendimendua handitu zen.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK

	2016	2017	2017					
			Iraila	Urria	Azaroa	Aben.	Urt.	Otsaila
Truke tasak								
Dolarra/euro	1,107	1,129	1,191	1,176	1,174	1,183	1,220	1,235
Yena/euro	120,3	126,7	131,9	132,8	132,4	133,6	135,3	133,3
Libera esterlina/euro	0,819	0,876	0,895	0,891	0,888	0,883	0,883	0,884
Yena/dolarra	108,8	112,2	110,7	112,9	112,8	112,9	110,9	107,9
€ efektibo nominala (%)	94,4	96,6	99,0	98,6	98,5	98,8	99,4	99,6
Burtsa indizeak (*)								
IBEX35	-2,0	7,4	11,0	12,5	9,2	7,4	4,1	-2,0
Eurostoxx-50	0,7	6,5	9,2	11,7	8,5	6,5	3,0	-1,9
Dow Jones	13,4	25,1	13,4	18,3	22,8	25,1	5,8	1,3
Nikkei 225	0,4	19,1	6,5	15,2	18,9	19,1	1,5	-3,1

(*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilearen azken egunera arte.
Iturria: Europako Banku Zentrala eta Espainiako Bankua.

Dibisen merkatuan, euroak balio apur bat irabazi zuen aurtengo lehen hilekoetan. Hain zuzen ere, Euroguneko moneta politika normalizatuko delako igurikimenez, Alemaniako gobernua osatzeko negoziatioetan aurrerapenak egin izanak eta Europako adierazle makroekonomikoen bilakaera onak euroak dolarraren aldean zuen kotizazioa indartu zuten aurtengo lehen bi hilekoetan, nahiz eta AEBetan interes tasak igoko zirelako igurikimena egon arren. Aurrekoaren ondorioz, 2017ko abenduaren amaieratik aurtengo otsailaren amaiera arte doan epealdian, euroaren balioa %4,3 igo zen dolarraren aldean, %0,1, berriz, libera esterlinaren aldean eta %4,4 galdu zenaren aldean.



2017an, munduko burtsek irabazi garrantzitsuak lortu zituzten eta joera hori 2018ko lehen hiru asteetara ere luzatu zen. Hala ere, harez geroztik galerak orokortu ziren nazioarteko burtsa nagusietan. AEBetan eta Erresuma Batuan jaso zen inflazio handiagoak eta interes tasak aurreikusi zena baino lehenago igotzeko aukerak hegakortasuna areagotu zuten eta Atlantikoaren bi aldeetako indizeek galera handiak izan zituzten (egun bakar batean, Dow Jones

indizea 1.175 puntu jaitsi zituen, bere balioaren %4,6 galduta; hori da 2011tik inoiz izan duen galerarik handiena). Otsailaren erdialdean indizeek gora egin zuten arren eta galdutakoaren zati bat berreskuratu zuten arren, burtsa gehienek galera garrantzitsuak pairatu zituzten hileko horretan.

Etxebizitzaren hipoteken bilakaera

Batez besteko zenbatekoa (ezkerrean) hipoteka kopurua (eskuinean). Mila

Euriborra. 12 hilera



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Interes tasen egonkortasunak eta arrisku sarien beheranzko joera leunak euriborra eremu negatiboan utzi zuten berriro eta dagoeneko hogeita bost hileko jarraian eman ditu egoera horretan. Interes tasak apalak izan arren, kreditu erakundeek eskaintzen dituzten finantzaziorako baldintzak egokiak izan arren eta EAEko familien egoera ekonomikoa ona den arren, sinatutako hipoteken kopurua jaitsi zen 2017ko laugarren hiruhilekoan. Hain zuzen ere, 2016ko epealdi berean baino 153 hipoteka gutxiago adostu ziren. Horrekin, lau hiruhilekoz jarraian gutxitu da hazkunde tasa. Dena dela, EAEn iaz 16.250 hipoteka sinatu ziren, 2016ko kopuruaren aldean %4,4ko gehikuntza jasoz. Hala eta guztiz ere, emaitza hori Estatuko batez bestekoaren bost puntu luze beherago kokatu zen, lurralde horretan gehikuntza tasa ia %10,0ra iritsi baitzen.

Iazko laugarren hiruhilekoan, EAEko eragileek, hala publikoek nola pribatuek, beren zor maila murrizten jarraitu zuten. Hartutako maileguen pixkanakako murrizketak, interes tasen jaitsierak eta kredituen merkatzeak zorpetze maila poliki-poliki gutxitzea ahalbidetu zuten eta lehenengo aldiz hamahiru urtean, zorpetzea BPGaren balioaren azpian kokatu zen. Zehatz-mehatz

adierazita, kredituen kopurua 2017ko amaieran BPG osoaren %96,2 ziren. Maila hori 2004an jasotako %98,0 hura baino are txikiagoa da. EAEko familiek beren egoera onbideratzeko ahalegin garrantzitsuaren ondorioa da. Izan ere, azken datuen arabera, familien gaur eguneko zorpetze maila 2008an zegoena baino %24,8 beherago dago. Horrek esan nahi du familien zorrak 21.140 milioi eurotan baino gehiago murriztu direla. Beste aldetik, arlo publikoak ere bere zorpetze maila jaisteari ekin zion, baina oraindik bide luzea dauka aurretik krisiaren aurreko mailetara itzultzeko. Izan ere, garai hartan arlo publikoaren zorra BPGaren %2,0 baino ez zen eta 2017an %9,0ra igoa zen.

KREDITU ETA GORDAILUAK

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2016	2017	2017					Aldea 2008-IV eta 2017-IV artean	
			I	Mila €	Mila €	IV	IV	Milioi €	Tasa
Kredituak	2,2	-1,0	1,4	1,1	-3,5	-1,0	70.862,2	-16.557,4	-18,9
Arlo publikoa	5,4	-5,5	-3,1	-0,9	-6,9	-5,5	6.611,8	4.583,5	226,0
Arlo pribatua	1,8	-0,5	2,0	1,3	-3,1	-0,5	64.250,3	-21.140,9	-24,8
Gordailuak	1,9	4,7	3,8	2,8	2,0	4,7	79.661,5	3.317,9	4,3
Arlo publikoa	-0,2	11,2	1,7	29,7	28,0	11,2	3.226,5	-2.506,7	-43,7
Arlo pribatua	2,0	4,4	3,9	1,8	1,0	4,4	76.435,0	5.824,7	8,2
Agerikoak	15,0	20,9	19,9	19,3	17,0	20,9	58.216,1	31.228,6	115,7
Eperakoak	-16,6	-27,3	-19,8	-27,9	-27,6	-27,3	18.218,9	-25.404,0	-58,2

Iturria: Espainiako Bankua.

Kontuan hartuta berriki gertatu den krisi ekonomikoak utzi duen hondamendia eta %0,0tik oso hurbil dauden interes tasen testuinguru batean, normalizat jo behar da eperako gordailuak erakargarriak ez izatea. Izan ere, azken urtebetean bakarrik, EAEko eragileek 6.853 milioi euro atera dituzte eperako produktuetatik. Datua are argigarriagoa da alderaketa 2008ko amaierako kopuruarekin egiten bada, kasu horretan ateratako diru guztia 25.400 milioi eurora iristen baita. Hala ere, oraingoz, diru hori ez da burtsa merkatura lotutako beste aktiboetara zuzendu eta ageriko zein konturako gordailuetara bideratu da, berehalako eskuragarritasuna duten aktiboak baitira. Beste aldetik, ekonomiaren hobekuntzak familien aurrezteko ahalmena areagotu du. Beraz, ageriko zein konturako gordailuen bilakaera ona ez da harrizkoa, hiru urtez bi zenbakiko hazkundeak biltzen eman baitute. Hain zuzen ere, 2017an %20,9 hazi ziren, 58.200 milioi eurotik gorako kopurua bilduz.

Aurreikuspenak

Datozen urteetan munduko ekonomiaren hazkundera finkatuko dela aurreikusten da. Nazioarteko erakunde batzuek argitaratu dituzten etorkizuneko aurreikuspenek goranzko zuzenketa islatu dute 2018an eta egonkortasuneko irudia 2019an. Consensus Forecasts-ek martxoan ezagutarazi zituen aurreikuspenek %3,3an kokatu zuten munduko ekonomiaren 2018ko hazkundera tasa, truke tasan neurtuta, eta %3,2an, berriz, 2019koa. Goranzko zuzenketa orokorra da ekonomia eremu guztietan eta epe laburreko ziurgabetasuna aurreko epealdietakoa baino txikiagoa da orain.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2017	2018	2019	2017	2018	2019
Munduko ekonomia	3,2	3,3	3,2	3,7	8,0	3,4
AEB	2,3	2,8	2,6	2,1	2,4	2,1
Kanada	3,0	2,1	1,9	1,6	2,1	2,0
Japonia	1,7	1,4	1,1	0,5	1,0	1,1
Eurogunea	2,5	2,4	1,9	1,5	1,5	1,5
Europar Batasuna	2,4	2,2	1,9	1,7	1,7	1,8
Alemania	2,2	2,4	1,9	1,8	1,7	1,8
Espainia	3,1	2,7	2,3	2,0	1,5	1,5
Frantzia	2,0	2,1	1,8	1,0	1,4	1,5
Herbehereak	3,1	2,8	2,3	1,4	1,6	2,1
Italia	1,5	1,5	1,2	1,2	1,1	1,3
Erresuma Batua	1,7	1,6	1,5	2,7	2,6	2,2
Asia eta Ozeano Barea	5,0	4,9	4,7	1,7	2,2	2,3
Ekialdeko Europa	3,8	3,1	2,9	4,8	5,1	4,8
Amerika Latinoa	1,8	2,6	2,9	23,7	81,5	17,3

Iturria: Consensus Forecasts (2018ko martxoa).

Munduko bi ekonomia nagusiei dagokienez, AEBetako ekonomia %2,8 haziko da 2018an eta %2,6ra motelduko da gero 2019an, Consensus Forecasts-en arabera. Eskari globalak eta dolarraren ahultasunak kapital eraketa gordinen eta esportazioetan izango duten eragin positiboak ekonomia estatubatuarrari mesede egingo dio. Beste aldetik, lan merkatuaren hobekuntza familien gastua kontsumoan bultzatuko duten faktore nagusietakoa izango da. Zerga erreformak ere eragin positiboa izango du ekonomian, baina eragin hori mugatua izango

da. Halaber, moneta politikak irizpide egokitzailari jarraipena emango dio, normalizatzeko prozesu batean. Eragin positibo horien testuinguru horretan mehatxuak ere badaude, hala nola aktibo batzuek gehiegizko balorazioa dutela iradokitzen duten zantzuak.

Beste aldetik, NDFk aurreikusi du Txinako ekonomia %6,6 haziko dela 2018an eta %6,4, berriz, hurrengo urtean. Herrialde horretarako igurikimenek hazkunde sendoa eta iraunkorra iragartzen dute, ekonomiaren irekierara eta helburu kualitatiboak lortzera bideratutako egiturazko erreformetan oinarrituta. Hazkunderako helburua bertan behera geratu izanak, teorikoki, Txinako ekonomiaren etorkizuneko garapena galgatu duen desoreka handirik ez dela egongo bermatuko du. Hala ere, ekonomia horren arrisku nagusiak beste herrialde batzuetan protekzionismoa areagotzeak ekar ditzakeen eragin negatiboak dira.

Eurogunean, Consensus Forecasts-ek zenbatetsi duen hazkundera %2,4an eta %1,9an kokatuko da, hurrenez hurren, 2018an eta 2019an. Tasa horiek ere gorantz berrikusi dituzte, hainbat arrazoiengatik: Europako ziklo egoera hobea da, lan merkatuak hobera egin du, barne eskaria sendoa da, ekonomia eragileen konfiantza handitu da, merkataritza suspertu da eta munduko ekonomiaren hazkunderaren oraingo aurreikuspenak aurrekoak baino baikorragoak dira. Europako Banku Zentralak ezarri duen moneta politikak aldeko baldintza finantzarioak eta euro nahiko egonkor bat bermatuko ditu. Aurreikuspen horiekin batera, arrisku global orekatuak aurkeztu dituzte. Alde batetik, epe laburrean ekonomiaren hazkundera orain aurreikusi dutena baino altuagoa izan daiteke, konfiantza maila altua delako. Beste aldetik, Brexitari buruzko negoziazioen emaitza zalantzarriak, joera protekzionistek eta herrialde batzuetako ezegonkortasun politikoak beherantz eraman ditzakete aurreikuspen horiek.

Espainiar ekonomiarentzat espero den hazkundera, Consensus Forecasts-ek zenbatetsia, %2,7an kokatu da 2018rako eta %2,3an, berriz, 2019rako. Beste aldetik, CEPREDEk %2,6an jarri du 2018ko gehikuntza tasa eta bat dator 2019ko aurreikuspenean (%2,3). Ekonomiaren igoera barne eskarian oinarrituko da, ekonomia eragileen igurikimen baikorrek eragindako testuinguru batean. Familien kontsumoa BPGaren hazkunderaren motor nagusia izango da oraindik. Hala eta guztiz ere, barne eskariak moteltzeko joera arina erakutsiko du kontuan hartu den denboraldian zehar. Enplegua sortzeko erritmoa apalduko da, interes tasak igoko dira eta prezioak garestituko dira. Arrazoi horien ondorioz, eskariaren agregatuen gehikuntza tasa zertxobait txikiagoa izango da.

Lanaldi osoko lanpostu baliokideen terminoetan, CEPREDEk moteltze arina aurreikusten du eta aldakuntza tasa %2,3an eta %1,9an kokatu du, hurrenez hurren, 2018rako eta 2019rako. Beste aldetik, langabezia tasari buruzko igurikimenek jaisteko joera erakusten dute. Izan ere, 2018an %15,8an kokatu da eta 2019an, berriz, %14,5ean.

ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2018ko martxoa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018				2018	2019
	I	II	III	IV		
BPG	2,9	2,6	2,5	2,4	2,6	2,3
Kontsumo pribatua	2,6	2,4	2,2	2,1	2,3	2,0
Kontsumo publikoa	2,3	2,1	1,8	1,6	2,0	1,6
Kap. finkoaren eraketa gordina	4,7	4,4	4,2	3,7	4,2	3,5
- Inbertsioa ekipamenduan	6,6	5,8	4,8	3,9	5,3	4,0
- Inbertsioa landutako aktibotan	0,0	0,5	0,9	1,1	0,7	2,5
- Inbertsioa eraikuntzan	4,2	4,3	4,6	4,0	4,3	3,3
Barne eskaria	3,0	2,7	2,4	2,2	2,6	2,2
Esportazioak	4,7	4,5	4,6	5,0	4,7	4,9
Inportazioak	5,3	5,0	4,5	4,4	4,8	4,6

Iturria: CEPREDE.

Ingurune makroekonomikoaren koiunturako informazioa eguneratuta eta EAEko ekonomiaren beraren adierazle berriak erabilita, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiaren taula makroekonomikoa 2018rako berrikusi du eta hamarren bat goratu du aurreikuspena. Hazkundearen norabidea sendoa eta iraunkorra izango dela espero da. Orobat, 2019rako lehen zenbatespena prestatu da eta urte horretarako moteltze arina aurreikusten da ekonomiaren bilakaeran. Hain zuzen ere, BPGaren aldakuntza tasak %2,6an eta %2,2an aurreikusten dira, hurrenez hurren, 2018rako eta 2019rako. Kontuan hartu den epealdi osoan, hiruhileko arteko hazkunde tasetan egonkortasun esanguratsua hautematen da.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako BPGaren hazkundera lideratuko duen indar nagusia barne eskaria izango da berriro. Agregatu horrek 2,7 puntu ekarriko dizkio EAEko ekonomiari 2018an eta 2,3 puntu, berriz, 2019an. Familiek azken kontsumoan eginiko gastua eta ekipamendurako ondasunetan enpresek egingo duten inbertsioa izango dira ekonomia gehikuntzaren faktore nagusiak. Petrolioaren salneurria oraindik apala izateak, lan merkatuaren egoera hobek, interes tasa apalek eta Europako hazkundearen goranzko zuzenketak konfiantzako testuingurua markatuko dute EAEko kontsumitzaileentzat eta enpresarietzat. Euroari dagokionez, balio apur bat irabaziko duela aurreikusten da, baina mugimendu horren eragina oso mugatua izango dela espero da. Eszenategi makroekonomiko berrirako kontuan hartu den epealdian, esportazioek

eta inportazioek antzeko gehikuntza eskuratuko dutela aurreikusten da. Horren ondorioz, kanpo eskariak BPGaren hazkundeari 2018an eta 2019an egingo dion ekarpena hutsala izango dela pentsatzen da.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2018ko martxoa)

Urte arteko aldakuntza tasak


	2018				2018	2019
	I	II	III	IV		
BPG	3,0	2,7	2,5	2,4	2,6	2,2
Azken kontsumoa	2,7	2,5	2,2	2,2	2,4	1,9
Kontsumo pribatua	2,8	2,6	2,3	2,3	2,5	2,0
Kontsumo publikoa	2,0	1,8	1,6	1,8	1,8	1,6
Kapital eraketa gordina	3,5	3,3	3,5	3,2	3,4	2,8
Barne eskariaren ekarpena	3,0	2,8	2,6	2,6	2,7	2,3
Kanpo saldoaren ekarpena	0,0	-0,1	-0,1	-0,2	-0,1	-0,1
Lehen arloa	-2,5	-5,7	-9,9	-9,4	-6,9	-5,9
Industria eta energia	3,4	3,1	2,8	2,5	2,9	2,2
Eraikuntza	2,7	2,4	2,1	1,9	2,3	1,7
Zerbitzuak	3,0	2,8	2,7	2,7	2,8	2,3
Balio erantsi gordina	3,1	2,7	2,6	2,5	2,7	2,2
Ekoizkinen gaineko zergak	3,0	2,5	2,3	2,2	2,5	2,0
BPGaren deflatoarea	1,3	1,3	1,4	1,4	1,4	1,5
Enplegua	2,2	2,0	1,8	1,6	1,9	1,4
Langabezia tasa	10,9	10,6	10,3	10,2	10,5	10,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


Ekoizpen sektoreak aztertuta, jarduera adar guztiek balio erantsi gordinari ekarpen positiboak egingo dizkiotela aurreikusten da, salbuespen bakarra lehen arloa izango delarik. Nekazaritza eta arrantza biltzen dituen adarrak, taula makroekonomiko berri horren arabera, beheara egingo du kontuan hartu diren bi urteetan. Gainontzeko sektoreei dagokienez, eraikuntzak gehikuntza esanguratsuak lortuko dituela espero da, susperraldi sendoa eta iraunkorra daukala agerian utziz. Beste aldetik, industria eta zerbitzuak balio erantsi gordinaren adar dinamikoenak izango dira. Europan inbertsioa areagotzeak eta Alemaniako zein Frantziako ekonomien bilakaeraz dauden aurreikuspen positiboak, bi horiek baitira EAEko industria produktuen erosle nagusiak, EAEko industriari mesede egingo diote.

2018ko aurreikuspenak Urte arteko aldakuntza tasak

Eusko Jaurlaritzaren berrikusketak



Aurreikuspen panela



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, CEPREDE (2018ko otsaila), BBVA (2017ko azaroa), Confebask (2017ko abendua), Laboral kutxa (2017ko abendua), Funcas (2017ko azaroa) eta Hispalink (2017ko abendua BEGren aldakuntza).

Lan merkatuari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako aurreikuspen berriek iradokitzen dute enplegua %1,9 handituko dela 2018an eta %1,4, berriz, datorren urtean. Tasa horiek esan nahi dute aurten 17.000 enplegu inguru sortuko direla eta 13.000 enplegu inguru, berriz, 2019an. Hazkunde horien aurreikuspena betetzen bada, 2019. urtean berreskuratuko dira 2006an zeuden lanpostuak, baina oraindik 30.000 enplegu inguru faltako dira 2008an zeudenak berdintzeko, inoizko kopururik handiena urte horretan lortu baitzen. Beste aldetik, langabezia tasa 2018an %10,5era jaitsiko dela aurreikusten da, hurrengo urtean %10,0ra beharrezko. Hori horrela izanda, 2019ko bigarren seihilekoan langabezia tasa %10,0aren azpian kokatuko dela aurreikusten da.

Eusko Jaurlaritzak 2018 urterako orain egin duen aurreikuspena erdialdean kokatzen da beste erakunde batzuek EAEko ekonomiarako argitaratu dituzten aurreikuspen multzoaren artean. Aurreikuspen horien mutur batean Hispalink-ek (%2,2) zenbatetsi duen balio erantsia dago eta beste muturrean Confebask-ek eta BBVAko azterlan zerbitzuak kalkulatu duten %2,9 hautematen da.